



DANI BLANCO

Angel Erro

♦ IDAZLEA

Gutxien bustitzeko liburu zuria

BEHARBADA superpotentzia emozional bat bagarelako eta oso erraz hunkitzen diren herritarrez inguraturata bizitzera ohitu garelako, ondokoa gutxien mintzen ere ikasi dugu, horretarako teknika askotarikoak garatuz; iritzia emateko tenorean, geure burua gehiegi saldu gabe, ondokoa deseroso sentiaraztea saihesteko moduak asmatu ditugu, hots, eskuak ahalik eta gutxien zikintzeko, edo geure burua ahalik eta gutxien konprometitzeko. Artikulu hau teknika horien bilketa apala baino ez da.

1. Ondokoa ez mintzeko, lehen eginbeharra da mindu daitekeen ordezeko bat bilatzea, denbora osoan inor mindu gabe bazabiltza, pertsona onegien gainean erori ohi den susmoa zeureganatuko baitzenuke: zerbait ezkutatzearena, saihestu nahi dituzun bazterketa ondorioak azkarrago erakarriz. Egia biribilak aurpegiatzeko ordezekoak, beraz, zeure komunitatetik kanpokoa izan behar du, baina harekin nolabaiteko harremana, zeharkakoa edo gailentasunekoa, izan behar du. Zenbat eta urrunagokoa edo zenbat eta boteretsuagoa izan, orduan eta aukera gutxiago duzu hura mindu eta haren minak zuri kaltea eragin diezazun.

2. Errepara egiezu xehetasunei. *Zure esku dago* ekimean, esaterako, hark bilatzen dituen helburuetan, hara iristeko bitarteko edo, besterik gabe, antolakuntzan kirrinka egiten dizun zerbait baldin badago, beharbada nola adierazi ez dakizuna (sentimendu horri hitzak aurkitzea “bustitzeko” modua bailitzateke), edo jakinda ere, esatera ausartzen ez zarena, esatea libre bada ere, baina askeagoa da isiltzea, orduan, xehetasunei errepara egiezu: Egun hartan bertsolari batek botatako espresioa, leloa edo dena delakoa, *Euskal Herria superpotentzia emozional bat da*, hartu eta hari buruzko bromak, ez argie-

giak, egin. Ez dadila garbi geldi ados zauden ala ez, alde edo kontra, baina bai umore handiko pertsona zarela.

3. Kritikak egiteko adina behin gaindituta, gurean, oso adin baxua, kritikotasuna izatea gazte izatearekin lotuta baitago –literatur kritikariaren batz besteko adina ikustea besterik ez dago–, orduan, oraindik txalotzen baita dagoenarekin *tabula rasa* egin nahi oldarkor eta (auto)suntsitzailea, oraindik bideragarria eta moldagarria denean, kritikak egiteko adina behin gaindituta, esaten genuen, kritikak egiten jarraitzen duzulako itxura egiten ikasi behar duzu, sistemara makurtu ez zarela sistemari erakusteko, baina siste-

mak, geure oldarkortasunagatik beragatik bere baitan onartu gaituenak, gu kanporatzeko arriskuez libratuta –taldearena hori baita benetako oldarra!–.

3. 1. Itxura egin eta zeure gustua gehiegi ez konprometitzeko taktika, zerbait epaitu orde, hark guran eragiten digun sentsazioaren berri ematean datza. Zerbait gertatzeak *triste* jartzen gaituela esanen dugu, zerbait hura gaitzetsi beharrean. Liburu bat gomendatu orde, ona ala txarra den erabaki orde, delako liburua *gustura* irakurri dugula adieraziko dugu, bizi garen superpotentzia honetan guztiek ulertuko dute ulertu beharrekoa.

3. 2. Gauzak interesgarritzat jotzea ere bada, inor mindu gabe, benetako iritzia ordezteko metodo erraz eta kaltegabea. Twitterren askotan erabiltzen den adjektiboa da *interesgarria*, norbait zabaltzen duen lotura edo beste norbaiten adierazpenarekin bat. Zera esan nahi du: “Honek dioen edo hemen esaten denarekin ados nago, baina ez iritzi hura niri egotz diezadazuen portzentaje seguruan, horregatik haren irakurketa eta neure burua jakin-gose globalaren babespean paratzen dut”. ■



Antton Olariaga